

Abenduaren 8an
MARIA BIRJINA DOHATSUAREN SORTZE GARBIA
Bilbao, Vitoria-Gasteiz eta Donostiako Elizbarrutietan
Seminarioaren eguna

Agurra

Mariaren errailetan gizon egin zen Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako Oharpena

Abendua Andre Mariaren hila da. Bera da itxaroten dakiena, bera da "Itun Berriaren Kutxa" Jaunak garbi eta eder prestatua. Berari begira ikasten dugu Eguzki berria onartzeko bidea egiten.

Seminarioaren eguna ere bada gaur. Horregatik, gogoan izango ditugu gure otoitzean apaiz izateko prestatzen ari direnak; Kristoren bihotzaren arabera hezi dezaten, santutu eta gidatu Jainkoaren Herria. Seminarioaren eguneko aurtengo goiburua hau da: «Gazteentzat apostolu». Horregatik, eska diezaiogun Jainkoari jarrai dezala bokazioak sorrarazten, Ebanjelioa etengabe hots egina izan dadin eta jarrai dezala gure elkarteetako gazteei eragiten, Kristorekin bat eginda bizi daitezen.

Damu-otoitza

Presta gaitezen Eukaristiarako, gure bekatuen barkamena eskatuz.

- Jesus Jauna, Espiritu Santuaren egitez Andre Mariagandik jaioa: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, munduaren azkena arte gurekin zarena: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, salbamena burutzeko etortzekoa zarena: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara.

Aintza zeruetan

Andre Mariarekin eta santuekin bat eginik eta Eliza osoarekin batera gores dezagun Jainkoa Aintza zeruetan [esanetz] kantatuz.

Otoitza

**Jainko Jauna, Maria Birjinaren Sortze garbiaz,
egoitza egokia prestatu zenion zeure Semeari;
eta, Semearen heriotzatik zetorren graziari esker,
bekatu guztietatik garbi gorde zenuen Ama;
egizu, Andre Mariaren otoitzez, gu Zugana garbi irits gaitezela.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Testigu alaiak izateko deia egiten zaigu. Erantzun dezagula Mariak bezala: «Hona hemen ni, Jauna, gerta bedi nigan zure nahia».

Lehenengo irakurgaia (Gn [Has] 3, 9-15. 20)

Genesis liburutik

Jaungoiko Jaunak gizonari dei egin eta honela esan zion: «Non zara?» Eta hark erantzun: «Baratzean ibiltzen sumatu zaitut eta, larrugorri nengoelako, beldurrez, gorde egin naiz». Jaunak orduan: «Eta nork esan dizu, larrugorri zeundela? Jatea galerazi nizun zuhaitzetik jan al duzu?» Gizonak erantzun: «Lagun ipini didazun emakumeak eman dit hartatik, eta nik jan». Orduan Jaungoiko Jaunak esan zion emakumeari: «Zer egin duzu?» Emakumeak erantzun: «Sugeak atzipetu nau, eta nik jan».

Orduan Jaungoiko Jaunak sugeari esan zion: «Hori egin duzulako, madarikatua izango zara abere guztien eta landako pizti guztien artean; sabel gainean ibiliko zara narrastaka; zure bizitzako egun guztietan hautsa jango duzu. Haserrea sortuko dut zure eta emakumearen artean, zure jatorriaren eta harenaren artean; honek buruan emango dizu, zuk orpotik helduko diozunean».

Gizonak emazteari «Eva» ezarri zion izen, bizidun guztien ama delako.

Erantzun-salmoa (Sal 97, 1. 2-3a. 3c-4)

Kan -ta Jau - na - ri kan - tu be - rri, e - gin bait di -
tu hain - bat ha - rri - ga - rri.

Kanta Jaunari kantu berri,
egin baititu hainbat harrigarri.
Bere eskuinak eman dio garaipena,
bere beso santuak. R/.

Ezagutarazi du Jaunak Beragandiko garaipena,
agertu du atzerrien aurrean bere zuzentasuna.
Oroitu da bere maitasunaz,
Israel etxeari dion leialtasunaz. R/.

Ikusi dute lur muga denek
gure Jainkoagandiko garaipena.
Lur osoa, egiozu txalo Jaunari,
egin oihu eta irrintzi, egin gresi. R/.

Bigarren irakurgaia (*Ef 1, 3-6. 11-12*)

San Paulo Apostoluak Efesoarrei

Bedeinkatua izan bedi Jainkoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita, Espirituaren era guztietako bedeinkapenez, zeruan Kristorengan bedeinkatu gaituena.

Harengan aukeratu baikintuen, mundua sortu baino lehen, Haren aurrean, maitasunez, santu eta errugabe izan gaitezen.

Aurrez aukeratu gintuen bere semeorde izateko, Jesu Kristoren bidez, bere nahiaren onberatasunez; bere Seme maitearengan hain ugari eman digun graziaren aintzak Bera gorespenez bete dezan.

Kristorengan oinordeko gertatu gara gu ere; horretara deituak izan gara, gauza guztiak Berak nahi bezala egiten dituenaren erabakiz. Eta Kristorengan uste on izan genuenok, Jainkoaren aintzaren gorespen izango gara.

Aleluia (*Lk 1, 26-38*)

Poztu zaitetz, Maria, graziaz bete hori:
Jauna zurekin;
 bedeinkatua zu emakumeen artean. R/.

Ebanjelioa (*Mk 13, 33-37*)**Homiliarako argibideak**

Mariaren askatasuna

Egiaz ederra da San Lukasen pasarte hau, Gabriel Goingeruaren eta Nazareteko Mariaren arteko topaketa kontatzen diguna. Jesusek lurrean izan zuen abentura bikainaren hasiera kontatzen zaigu bertan. Erospena beharrezkoa zen eta lankidetzan oso berezi bat behar zuen: Maria Birjinaren lankidetzan. Jainkoa ahalguztidun izateak ez du gizakien askatasuna mugatzen eta Salbamenaren urratsak hasteko aukeratua izan den pertsonaren baiezkoa jasotzera etortzen da Nazaretera Jaunaren aingerua. Mariak baietz esaten duen unean hasten da dena. Hainbeste mendetako kristau fedearen ondoren, ezinezkoa gertatzen zaigu gazte hark ezetz esan zezakeela pentsatze hutsa. Baina gerta zitekeen, eta hala ez balitz Gabrielen mintzaldia bestelakoa izango zen.

Horren lehenengo ondorioa hau da: Jainkoaren eta gizakien arteko harremana askea da, askatasun-harremana da. Jaunak ez du indarra erabiltzen gizakia berak nahi duen bidetik eramateko. Errazagoa litzake agian, gutako inork hala nahiago luke beharbada, hartara ez baikenuke inoiz ere bere Borondatearen aurka egingo. Baina horrek gure askatasuna mugatuko luke eta Jainkoak gu ez gintuen honela "pentsatu".

Kontraesan asko du gizakiak askatasunari dagokionean. Zenbaitek ez du nahi. Askori beldurra ematen die. Eta askatasunarekiko beldurrak bekatu asko dakar. Askatasuna da, ordea, gizakiaren ahalmen bikainenetakoa. Aske erabaki ahal izateak handi egiten du gizakia. Askatasun hori erabili heinean ikusiko da gizakiaren ontasuna edo gaiztakeria. Ezingo dio bere bekatuak inor leporatu. Baina on egiten duenean ere inork ez dio kenduko egin duen ahaleginaren meritua. Jainkoaren justizia ahalguztidunak bakarrik aurreikusi ahal izan du bere sorkariaren erabateko askatasun hori.

Askatasuna izan zuen Mariak salbamen bide hura bere egiteko eta Munduaren Salbatzailea bere erraietan zegoela poz handiz onartzeko. Une horretatik Kristoren historia Nazaretoko emakume hari lotua geratu zen. Horretan nabari dugu garbi, zeinen garrantzitsua den Maria Birjinarekiko jainera kristauontzat. Abendualdian erne bizi gara Jesusen etorreraren zain eta gure indar guztiz saiatu behar dugu honetan: Jesus berriz etortzean, bere jarraitzaile guztiok aurki gaitzala maitasunean bat eginda.

Gazteentzat apostolu

Erroman egin berria den Gazteen inguruko Sinodoaren harian pentsatua dago aurtengo Seminarioaren eguneko goiburua: Gazteentzat apostolu. Hiru aditzek gogoratzen digute bokazioaren, bereizmenaren eta bidelaguntzaren garrantzia.

Irten gazteen ondora: beraiekin denbora pasatzeko prest egonez, euren historiak entzunez, bere poz eta itxaropenak, kezak eta minak partekatuz. Ebanjelioak agertzen digute Jesusek horretarako duen gaitasuna, baita Jesusen begirada sumatzen duenak sentitzen duen erakarmena.

Begiratu egiazko artzainaren begiradaz: bihotzaren hondoraino begiratzuz mehatxurik edo indarkeriarik gabe; hori da berizmenaren egiazko begirada. Ebanjelioan, Jesusen maitasun begirada hitz bihurtzen da, onartu, aztertu eta eraiki behar den etorkizunarentzat hitz berri bat.

Deitu, gogoaz pizteko asmoz, lotzen duen guztitik edo erosokeria orotik mugiarazteko; aurrez prestatuta ez dauden erantzunak sorrarazteko galderak eginez.

Egigun otoitz gure apaizgaien alde eta eska diezaiozun uzta jabeari jarrai dezala deitzen, eta deituek erantzun dezatela Mariak bezala askatasunez eta borondatez.

Jainkoaren herriaren otoitza

Andre Mariarengan gizakien salbamenaren hasi zuen Jainkoari, eska diezaiozun Jaunaren biderra ateratzeko indarra eta laguntza:

Erantzuna: **Zatoz, Jauna, gu salbatzera!**



—Salbamenaren betea Mariarengan aurreikusi zuen Jaunak, lagun diezagula Elizako kide guztioi Kristoren Amaren edertasuna islatzen. Egigun otoitz. R/.

—Andre Mariarengan Salbatzailea ernearazi zuen Espiritu Santuak berak, mundua bete dezan eta gizaki guztiengan Jainkoaren Erreinuarekiko gogo beroa sorrarazi dezan. Egigun otoitz. R/.

—Gure apaizgaiek jaso dezaten kristau-elkarteen harrera eta beroa eta Andre Mariaren antzera Jainkoaren aurrean lanerako prest agertuko diren apaiz bokaziodunak gure artean falta ez daitezen. Egigun otoitz. R/.

—Andre Mariari begira, berak bezala Kristo onartzeko prestatu gaitzen eta Haren jaiotzako jaiak bihotzez ospa ditzagun. Egigun otoitz. R/.

Jainko gure Jauna, Andre Mariaren sortze garbian salbamenaren egunsentiak argi egin dezan nahi izan duzu; entzun gure otoitzak eta egizu Elizaren ekintzaz eta testigantzaz gizaki guztiek ezagutu dezatela zugandik datorkigula salbamen betea. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Eukaristiaren liturgiari oharpena (*Diru-bilketa egiterakoan*)

Gaurko diru-bilketa gure Seminarioari laguntzeko izango da. Gure apaizgaiak ongi presta daitezen lagunduko dugu, baita bokazio pastoraltzak harrera ona egiten jarrai dezan ere.

Prefazioa: *Festaburuari dagokion berezia.*

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Jainko Jauna,
 Maria Birjinaren Sortzea
 jatorrizko bekatutik garbi gorde zenuen,
 grazia berezi baten bidez;
 hartu dugun sakramentu honek sende ditzala guran
 bekatu horren zauriak.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Bedeinkapen Nagusia

Jauna zuekin. R/. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

**Maria Birjinagandik jaiotako Semearen bitartez
 gizakia bihotz onez salbatu duen Jainkoak
 eman diezazuela oparo bere bedeinkapena.** R/. Amen.

**Bizi-iturria eman dizuen Andre Mariaren laguntza
 izan dezazuela nonnahi eta beti.** R/. Amen.

**Eta Andre Mariaren jaia
 santuki ospatzera etorri zaretenoi eman diezazuela Jainkoak
 Espirituaren poza eta zeruko sariaren dohaina.** R/. Amen.

**Bedeinka zaitzate! Jainko ahalguztidunak:
 Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak.** R/. Amen.